

BULETIN N. 7

Abuztu 2021

Laburpen



LIFE BACCATA proiektuak Kantabria eta Atlantikoko Eremuko mendietan haginaren aniztasun genetikoari buruz nazioarteko eragineko artikulu bat argitaratu du	2
LIFE BACCATA proiektuaren azken txanpa	5
Galizian LIFE BACCATA proiektua berrezartzeko estrategiaren erreplikazioa	5
Galizian LIFE BACCATA proiektuko arboretoaren landaketa amaitu da	7
LIFE BACCATA proiektuak bere informazio genetikoak Euforgen programan eta Eufgis plataforman sartu du	8
LIFE BACCATA proiektuak Mediterraneo Natura 2000 hirugarren seminario biogeografikoan parte hartu du	9
Hagin landarearen ekoizpenari buruzko LIFE BACCATA proiektuko networking seminarioa	9
"Iberiari Penintsulan haginaren (Taxus baccata) aniztasun genetiko egin eta hura kontserbatzea"	12
LIFE BACCATA eta Sardinia artean baso habitaten kontserbazioari buruzko networking seminarioa	13
LIFE BACCATA proiektuak ehun hagin-baso baino gehiago bereizi ditu Kantauri mendikatean	15
Pagoetako Parke Naturaleko Hagin-basoa. Teknologia berriak integratzea, monitorizatzeko	16
Azken txanpa Gastela eta Leoneko hagin multzoen kontserbaziorako jardunen jarraipenean	17

"Any communication or publication related to the project, made by the beneficiaries jointly or individually in any form and using any means, shall indicate that it reflects only the author's view and that the Agency/Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains."

www.life-baccata.eu

SOCIOS



LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS




LIFE BACCATA proiektuak Kantabria eta Atlantikoko Eremuko mendietan haginaren aniztasun genetikoari buruz nazioarteko eragineko artikulua bat argitaratu du

2021eko martxoaren 12a



Iberiar Penintsulako iparraldeko Natura Sarea 2000ko KBE 30 eremutan banatutako 49 udalerritan haginaren 1.000 lagin baino gehiago biltzeko lanen ondorioz eta ondoren PCR teknikak eta sekuentziadore automatiko bidez DNA mikrosateliteren (SSR) bederatzi markagailu aztertu ostean, Kantabria eta Atlantikoko mendietako hagin populazioen aniztasun genetikoa eta ahaidetasun-gradua zehaztu ahal izan dira, proiektuko 3 zenbakidun Aldizkari ofizialean (2020ko abuztua) azaltzen guden eran.

Eskuratutako informazioa eta sortutako ezagutza horren adierazgarriak izan dira, ezen LIFE BACCATA proiektuko taldeak erabilitako metodologia jaso, jarraitutako prozedura zehaztu eta lortutako emaitzak eta horietatik eratorritako ondorioak zientzia komunitatearen aurrean aurkezteko artikulua bat eratu baitu. LIFE BACCATA proiektuko datuen garrantzia oso handia izan da. Horrela, horien balioa Kantauriar mendikate mailatik harago joateaz gain, informazioa Centre de Recerca Ecològica i Aplicacions Forestals (CREAF) zentroaren eskutik penintsula mailan haginaren genetikaren ezaugarriak zehazteko alde aurretik egindako lanekin erkatu da, proiektuko emaitzen testuingurua handitzeko aukera izan delarik. "Genetic diversity and structure of *Taxus baccata* from the Cantabrian-Atlantic area in northern Spain: A guide for



eragin berriagoak uztartzearekin lotuta. Orokorki, ekialdeen zeuden laginketetan ezberdintasun bat ikusi zen, mendebaldeko eremuetan konektibitate historiko handiagoko zantzuekin. Eskualde mailan, ezberdintasun genetikoak identifikatu ziren 7 multzo biogeografikoren artean, espeziearen eboluzioaren historian zeharreko aldaketa eta sakabanaketa prozesuekin lotuak. Eskala murriztago batean, tokiko egituraketaren osagai adierazgarri bat hauteman zen, populazioen arteko konektibitate txikia islatzen duena, espeziearen banaketako hegoaldeko mailen ezaugarri.

Eskuratutako datu genetikoei esker informazio eta irizpideak jaso dira, LIFE BACCATA proiektuaren kontserbaziorako ekintzak in situ (funtsean beren habitat naturalean indartze/landatze/ lokalizazioa harago ematea) nahiz ex situ (adibidez, aleen bankuak eta klonalak) orientatzeko oinarri gisa.



LIFE BACCATA proiektuaren azken txanpa

2021eko apirilaren 5a

Joan den martxoaren 24an LIFE BACCATA proiektuaren koordinaziorako taldearen bederatzigarren bilkura egin zen. Proiektuaren amaiera gero eta gertuago dago eta Compostelako Santiagoko Unibertsitateko, Hazi Fundazioko, Cesefor Fundazioko eta Gaztela eta Leongo Juntako kideek kontserbazio, jarraipen, sentsibilizazio eta emaitzen hedapenerako ekintza guztiak errepasatu zituzten.

Kontserbaziorako ekintzak arrakastaz bukatu dira eta datozen hiletan jarraipenerako ekintzak amaituko dira. Laster dagoeneko prestatzen ari diren jardunaldi teknikoaren eta azken seminarioaren inguruko informazioa helaraziko dugu.



Galizian LIFE BACCATA proiektua berrezartzeko estrategiaren erreplikazioa

2021eko maiatzaren 3a

LIFE BACCATA proiektua egikaritzearen ondorioz, Compostelako Santiagoko Unibertsitateko Terra Campuseko (Lugo) IBADER institutuak proiektuak sorrarazitako informazioa eta ezagutza Asociación para a Defensa Ecológica de Galiza (ADEGA) Elkartearekin trukatu eta transferitzeko esperientzia bat burutu du, hagin zuhaitzeko (Taxus baccata) habitata kontserbatu eta berrezartzearen inguruan.



Esperientzia Eira da Xoana (A Golada, Pontevedra) fundazioan burutu da. Irabazi asmorik gabeko fundazio horretan ADEGA elkarteak natura ondarearen inguruko heziketa eta berreskurapenerako esperientziak burutzen ditu. IBADER institutuak, Galizian hagin basoak berrezartzeko ekintzak gauzatzen dituen erakunde gisa, proiektuak ugalketako baso material modura sorrarazitako landarearen zati bat eman dio dohaintzan ADEGA elkarteari, haginak landatzeko jardunaldi bat ospatze aldera. Modu horretan, joan den martxoaren 6an LIFE BACCATA proiektuak sorrarazitako haginak landatzeko jardunaldi bat antolatu zuen. Horrela, ekitaldi horrekin erabilitako teknikak nahiz proiektuak eskuratutako emaitzak errepikatu egin dira.

IBADER institutuak sortutako landarearen jatorri material organikoa Galiziakoa da. Hala, proiektuak berrezartzeko lanetan tokiko material bateragarria erabiltzea ziurtatu du, atzerriko ekotipoak sartzen direnean gertatu ohi den kutsadura genetikoa ekidinez. LIFE BACCATA proiektuaren ondorioz IBADER institutuak sortutako landarea erabiltzeak ADEGA elkarteak projektuko emaitzak errepikatzea ziurtatzen du.

ADEGA elkarteak jardunaldi hau "Hagina: denbora denborari" kanpainan kokatu du, non Galiziako mendian ikurra den hazkuntza moteleko zuhaitz espezie bat balioan jartzen baita, eta natura ingurunea, habitatak eta espeziak errespetatzen dituen bizimodu pausatu bat aldarrikatzeko metafora gisa baliagarri dena. Modu horretan, LIFE BACCATA proiektuak sinergia interesgarria sortu du kanpaina interesgarri honekin.



LIFE
baccata



Galizian LIFE BACCATA proiektuko arboretoaren landaketa amaitu da

2021eko maiatzaren 3a

2021eko martxoko azken astean LIFE BACCATA proiektuko arboretoaren landaketa burutu da Galizian. Landaketan, guztira, 20 hagin (*Taxus baccata*) aldatu dira, Os Ancares – O Courel KBE eremuan (ES1120001) espeziearen multzo genetikoa ordezkatzekoak. Modu horretan, arboretoa baliagarri izango da eremu babestu horretako hagin eta hagin multzoen baliabide genetikoak ex situ kontserbatzeko estrategi modura.

Landaketa hori Compostelako Santiagoko Unibertsitateko Terra Campuseko (Lugo) lorategietan egin dute IBADER eta TRAGSA erakundeek, biak LIFE BACCATA proiektuko onuradunak. Landaketaren kokapenak izaera didaktiko nabaria emango du, Galiziako baso paisaiako ikur den espezie baten, haginaren (*Taxus baccata*), nahiz 9580* habitat lehentasunezkoaren ezagutza eta balioak herritarrei oro har eta Terra Campuseko kideei zehazki helaraziz, Natura Sarea 2000 ekimenaren funtsezko balioen artean Galizian.



LIFE BACCATA proiektuak bere informazio genetikoa EUFORGEN programan eta EUFGIS plataforman sartu du



2021eko maiatzaren 17a

LIFE BACCATA proiektuak, bere xede nagusia Kantauriar Mendilerroan 9580* habitataren kontserbazio-egoera hobetzea izaki, haren hastapenean aurreikusitako beste helburuetako bat bete du. 9580* habitataren espezie nagusia den haginaren (*Taxus baccata*) populazioen laginketa genetiko mamitsuaren ondotik, proiektuak horien inguruko informazio baliotsua sortu du, EUFORGEN proiektuan eta EUFGIS plataforman partekatu dena. EUFORGEN, basoaren kudeaketa iraunkorreko ezinbesteko atal gisa, Europan baso baliabide genetikoen kontserbazio eta erabilera iraunkorra bultzatzen duen nazioarteko kooperazioko programa da. Bestalde, EUFGIS Europan baso baliabide genetikoen kontserbazioaren inguruko informazio geoerreferentziatuaren sistema da, herrialde ezberdinetan baso espezieen kontserbazio genetikoko unitateei buruzko xehetasuneko informazioa gordetzen duen plataforma baterako sarbidea ematen duena. LIFE BACCATA proiektuak sortutako informazioa Espainian bi tresnak kudeatzen dituzten erakunde ezberdinen lankidetzarekin transferitu eta sartu da: INIA-CSIC, Aragoiko CITA eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa (MITECO).

LIFE BACCATA proiektuaren laginketa genetikoaren ondotik guztira 49 hagin guneren informazioa paratu da Kantauriar Mendilerroan, Galizia, Asturias, Gaztela eta Leon, Kantabria, Euskadi eta Portugal iparraldean banatuta. Modu horretan, proiektuak errotik gainditu du 15 unitateren ezaugarriak ipintzeko hasierako helburua (9580* habitata berrezartzeko ekintzak egiten diren KBE eremu bakoitzetik bat), Natura Sarea 2000 barneko zein kanpoko guneak gaineratuz, eta ezaugarritzeko eskualdeen espektroa areagotuz (Asturias, Kantabria edo Portugal iparraldean ez zeuden hasiera batean aurreikusita). EUFORGEN proiektuarekin eta EUFGIS plataformarekin partekatu da 49 guneri buruzko informazioa, hein handi batean bi horietan Iberiar Penintsulan *Taxus baccata* espezieari dagokionez zegoen informazioa eguneratu eta hobetuz. Modu horretan, EUFORGEN proiektuko core network izenekoan Baso Kontserbazio Genetikoko Unitate berri bat (UCGF) sortu da EUFGIS plataforman plataformaren beraren eta EUFORGEN programaren irizpideekin bat etorritik, eta aurretiaz dauden bat birbanatu egingo da LIFE BACCATA proiektuko informazioari esker. Gainera, Iberiar Penintsularen iparraldeko gainerako unitateetarako eskuragarri dagoen informazioa hobetu egingo da.

Haatik, proiektuak sortutako informazioa partekatzeko plataforma eta erakundeekiko hasieran aurreikusiak zituen helburuak gainditu ditu. Informazio genetikoa EUFORGEN proiektura eta EUFGIS plataformara transferitzetik eratorrita, eta prozesu horretan INIA-CSIC, CITA eta MITECO entitateek bete duten zeregin garrantzitsuari esker, 49 gune horiei buruzko informazioa, era berean, haginaren Kontserbazio Genetikoko Unitateen Sare Nazionalean sartu da, zeinaren arauzko eremua gaur egun garatzen ari baita Errege Dekretu modura. Horrek aukera emango du, xedapen hori onartuta, horietako informazioa dagozkion Autonomia Erkidegoetara helarazteko onartu eta arauzko esparrura gaineratze aldera.

LIFE BACCATA proiektuaren partenariatua zinez pozik dago proiektuaren transferigarritasun eta errepikagarritasunarekin, nahiz haginaren informazio genetikoa proiektuaren, eskumeneko erakundeen eta erabilgarri dauden proiektu/plataformen artean trukatzearen ondorioz lortutako eraginarekin.

LIFE BACCATA proiektuak Mediterraneo Natura 2000 hirugarren seminario biogeografikoan parte hartu du


2021eko maiatzaren 17a

LIFE BACCATA proiektua 2021eko maiatzak 4-7 bitartean egindako Mediterraneo Natura 2000 izeneko hirugarren seminario biogeografikoko eztabaida paneletan sartzeko aukeratutako proiektuetako bat izan da

LIFE BACCATA proiektuak, Kantauriar Mendilerroko

Natura 2000 15 KBE eremutan 9580* habitataren (Taxus baccataren mediterraneoko basoak) kontserbazio-egoera hobetzera bideratua, azalera urriko lehenesteko habitat bat, baso-multzo eskasak dituen eta zaugarritasun eta ahuldade handia eragiten duten kontserbaziorako arazo ugari dituen, berrezartzeari dagokionez bere esperientzia eman du.

LIFE BACCATA proiektuaren ekarpenak oso interesgarria izan ziren audientziarako, funtsean proiektuak azalera mailan Atlantiko eta Mediterraneo trantsizioko zona batean habitat motaren gainean izan duen eragin positibo handia. Horrek interes handia ematen dio zientifikoki nahiz biodibertsitatea kontserbatzeari so.



Hagin landarearen ekoizpenari buruzko LIFE BACCATA proiektuko networking seminarioa

2021eko maiatzaren 26a

Joan den maiatzaren 20an haginaren ekoizpenari buruzko LIFE BACCATA proiektuko networking seminarioa egin zen.



Seminarioa baliagarri izan da LIFE BACCATA proiektuak sortutako informazioa hedatzeko sistema modura, eta baita interesa azaldu duten beste eragile eta erakunde batzuekin LIFE BACCATA proiektuko emaitza interesgarriak eta hura egikaritzean sortutako know-how adierazgarria bi norabidetan trukatzeko. Horri esker, LIFE BACCATA proiektuko emaitzak beste organismo nazional nahiz nazioarteko batzuei helarazi zaizkie eta, horrek, beste lurralde eta egoera batzuetan aplikatzea dakar eta, horrenbestez, proiektua errepikatzeko aukerak areagotzen lagundu du.

Seminarioan Espainia iparraldeko autonomia erkidego ezberdinetan (Galizia, Asturias, Euskadi, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Katalunia) eta Portugalen (ICNF) Natura 2000 arloan eta basoaren kudeaketan eskumena duten administrazioetan banatutako 39 kidek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek, gaiarekin lotutako ministerioetako organismoek, tokiko erakundeek eta, are, partikularren batek parte hartu dute. LIFE BACCATA proiektuko taldea oso pozik geratu da partaidetzarekin, izan ere, ekitaldiak entzuleen interesa piztu du, ziurrenena hizlarien eta aurkeztu diren proiektuen kalitateagatik.

Ekitaldia grabatu egin zen jarraian hura behatzeko eskuragarri dago, baina gure borondatez kanpoko arazo tekniko bat dela medio, lehendabiziko bi aurkezpenak ez ziren grabatu. Hori dela eta, aurkezpenen estekak uzten dizkizuegu beha ditzazuen. Barka eragozpenak.

– **9580* habitataren berrezarpenerako haginaren bilketa, biderkatzea, gordetzea eta landatzea.** Javier Ferreiro, IBADER

– **Taxus baccataren hedapen begetatiboa hormona bidezko teknika aurreratuen bidez ingurumen eta kontserbazio estrategia berri gisa.** Eva Lozano-Milo, Esther Barreal eta Pedro Pablo Gallego, AgroBiotech for Health

– **Hagina MFR modura Gaztela eta Leonen: oinarritzko materialak, haziaren bidezko landare ekoizpena eta kontserbazio bankua.** Javier Tranque, Gaztela eta Leongo Junta.

– **Pagoetako haginaren translokazioa Aralarren hagin multzoen konektagarritasuna sustatzeko.** Javier Perez, HAZI Fundazioa.



- **Haginaren ex situ kontserbazioa: haztegia hedatzea ondare begetal autoktonoa mantentzeko estrategia modura.** Antonio Ferreira eta Laura Saloio, Instituto da Conservação da Natureza e das Florestas, ICNF.

Proiektuko hurrengo ekitaldia bihar, maiatzak 27, egingo da, "Iberiari Penintsulan haginaren (*Taxus baccata*) aniztasun genetiko egin eta hura kontserbatzeari" buruz eta seminarioaren gaian nahasita dauden eragile eta erakundeei nahiz publiko orokorrari dago zuzendua. Ekitaldiko informazio adierazgarria eta programa osoa eskuragarri daude hemen: Informazioa eta programa



“Iberiar Penintsulan haginaren (*Taxus baccata*) aniztasun genetiko egin eta hura kontserbatzea” seminarioa

2021eko maiatzaren 28a

LIFE BACCATA proiektuak Kantauriar Mendilerroko 15 KBE eremutan 9580* habitataren kontserbazio-egoera hobetzea du xede, habitataren kontserbazio-egoeraren adierazleen gainean jardunez: okupazio-eremua, egitura eta funtzioak eta etorkizuneko ikuspegiak. Azken hori jorratzeko, proiektuarekin 9580* habitataren kontserbazio-arazoetako bat ebatzi nahi da, hots, haginaren aldakortasun genetikoaren galera, C6 ekintzaren barnean ex_situ nahiz in_situ garatutako kontserbazio-neurri batzuen bidez: DNaren kontserbazioa, germoplasma bankua, arboretoen sorrera, baso genetikako kontserbaziorako unitateen ezarpena, Iberiar Penintsula iparraldeko populazioak genetikoki tipifikatzea.


Joan den maiatzaren 27an Iberiar Penintsulan haginaren (*Taxus baccata*) aniztasun genetiko egin eta hura kontserbatzeari buruzko LIFE BACCATA proiektuko networking seminarioa egin zen. Seminarioa baliagarri izan da LIFE BACCATA proiektuak Iberiar Penintsula iparraldeko hagin populazioaren aniztasun eta egitura genetikolari dagokionez sortutako informazioa nahiz hura egikaritzean beste LIFE proiektu batzuekin, ikerketa-zentroekin eta arloan eskumena



duten erakundeekin egindako informazioa bi norabidetan trukatzearen (networking) emaitzak hedatzeko sistema modura. Modu horretan, seminarioari esker, aldi berean, LIFE BACCATA proiektuko emaitzak beste organismo nazional nahiz nazioarteko batzuei helarazi zaizkie eta, horrek, beste lurralde eta egoera batzuetan aplikatzea dakar eta, horrenbestez, proiektua errepikatzeko aukerak areagotzen lagundu du.

Seminarioan Espainiako eta Portugaleko Natura 2000 arloan eta basoaren kudeaketan eskumena duten administrazioetako 63 kidek, ingurumen arloko GBE erakundeek, baso haztegi eta elkarteek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek eta gaiarekin lotutako ministerioetako organismoek, tokiko erakundeek eta, are, partikularren batek parte hartu dute. LIFE BACCATA proiektuko taldea oso pozik geratu da partaidetzarekin. Uste dugu ekitaldiak entzuleen interesa piztu duela, ziurrenera hizlarien kalitateagatik eta aurkezteko gaiagatik.

LIFE BACCATA eta Sardinia artean baso habitaten kontserbazioari buruzko networking seminarioa



2021eko maiatzaren 28a


LIFE BACCATA proiektuak Kantauriar Mendileroko 15 KBE eremutan 9580* habitataren kontserbazio-egoera hobetzea du xede, habitataren kontserbazio-egoeraren adierazleen gainean jardunez: okupazio-eremua, egitura eta funtzioak eta etorkizuneko ikuspegiak. Proiektuak modu asebetegarrian gauzatu du kontserbazio eta berrezarpenerako bere estrategia, Europar Batasuneko beste eragile eta erakunde batzuengan interes handia sortuz, non haginez hornitutako basoak paisaiaren elementu berezietako bat baitira. Hala, Sardinian (Italia) adibidez, duela zenbait hamarkada basoaren kudeaketa iraunkor bat egiten da baso habitaten kontserbazioa bermatzeko xedez.

Modu horretan, joan den uztailaren 6an LIFE BACCATA eta Sardiniako (Italia) erakundeek artean baso habitaten kontserbazioari buruzko networking seminarioa egin zen, habitat horiek epe labur eta ertainera kudeatzeko modua jorratuz, horien kontserbazio-egoera hobetze aldera. Seminarioa baliagarri izan da LIFE BACCATA proiektuko bazkideek (IBADER, Gaztela eta Leongo Junta, CESEFOR, HAZI eta TRAGSA) berrezartzeko egikaritutako esku-hartzeak trukatzeko sistema gisa, eta Iberiar Penintsula iparraldeko hagin multzoen kontserbazioari dagokionez sortutako ezagutza garrantzitsua Enrico Salaris ordezkari duen Sardiniako Eskualdeko Baso Agentziarekin (FoReSTAS) eta Gianluigi Bacchetta ordezkari duen Centro Conservazione Biodiversità de la Università degli Studi di Cagliari Zentroarekin trukatzeko. Seminarioari esker, aldi berean, LIFE BACCATA proiektuko emaitzak beste organismo nazional nahiz nazioarteko batzuei helarazi zaizkie eta, horrek, beste lurralde eta egoera batzuetan aplikatzea dakar eta, horrenbestez, proiektua errepikatzeko aukerak areagotzen lagundu du.

Seminarioan Espainiako eta Portugaleko Natura 2000 arloan eta basoaren kudeaketan eskumena duten administrazioetako 28 kidek, Sardiniako (Italia) gobernuko erakunde ezberdinetako kideek eta ingurumen arloko GBE erakundeek, unibertsitateek, ikerketazentroek, ingurumen arloko aholkularitzek eta tokiko erakundek parte hartu dute. LIFE BACCATA proiektuko taldea oso pozik geratu da partaidetzarekin. Ekitaldian arloan inplikazio handia duten entzuleak batu dela uste dugu, Sardinian etorritako hizlarien kalitatea eta horiek aurkezteko gaiaren interes handia kontuan izanik.



LIFE BACCATA proiektuak ehun hagin-baso baino gehiago bereizi ditu Kantauri mendikatean




2021eko uztailaren 16a

Life Baccata proiektuko lantaldeek Aralar Parke Naturaleko pagadien karakterizazio-lana egin dute. Parke hori Natura 2000 Sarearen parte da, Kontserbazio Bereziko Eremua delako. Egindako lana dibulgazio-bideo honen bidez islatu da. Bideo horretan azaltzen denez, kartografiaren bidez habitat horren benetako okupazioa ezagutzea lortu da, non haginak, gorostiak, astigarrak eta ezkiak pagadi nagusi trinkoaren azpian koexistitzen baitira. Pago nagusien eta mendean hartutako haginaren arteko erlazio ekologikoa ulertzeko, jarraipen-partzelak eraiki dira, geomatika-teknika aurreratuenak erabiliz.

Emaitza 3D eredu bat da, 16 milioi puntukoa, habitata hobetzeko ekintzak baliozkotzeko balio izan duena. Ekintza horien artean daude presio belarjalea murrizteko markoak eta baso-tratamenduak, perturbazio natural txikiak emulatuz. Teilek fruituen ekoizpena eta adaburuen hazkundea areagotuz erantzuten dute, habitataren sakabanaketa errazten duten prozesu ekologikoen katea aktibatuz.

Ekintza horiek Europar Batasunak lehentasunezko interes komunitariokotzat jotzen duen habitataren kontserbazio-egoera hobetzen lagundu dute.





Pagoetako Parke Naturaleko Hagin-basoa. Teknologia berriak intefratzea, monitorizatzeko

2021eko uztailaren 16a


El proyecto LIFE BACCATA ha caracterizado más de un centenar de tejedas en la Cordillera Cantábrica. El Parque Natural de Pagoeta forma parte de la Red Natura 2000 por ser Zona Especial de Conservación. A escasos kilómetros

del mar, Pagoeta alberga algunas de las tejedas más pujantes de la Cordillera Cantábrica. Mediante técnicas de modelización 3D el proyecto LIFE BACCATA ha estudiado las tejedas más relevantes del Parque Natural.

En el **bosque de Aitzpelarreta**, por primera vez analizamos con exactitud este bosque antiguo formando una compleja estructura arbolada descifrada gracias al proyecto LIFE BACCATA. El resultado es una nube topográfica de 18 millones de puntos en tres dimensiones.

El monitoreo de la dinámica del bosque ayudará a conservar este hábitat tan emblemático, y además, con el fin de conocer la verdadera estructura de estas formaciones es necesario estudiarlas desde dentro. Esto se ha llevado a cabo mediante la toma de **1524 fotografías del interior del bosque en Zezen Erreka** creando un molde en tres dimensiones con 19 millones de puntos utilizados para cuantificar la estructura y funciones ecológicas de estas tejedas. Los resultados indican que Pagoeta exhibe una de las tasas de regeneración efectiva de tejo más elevadas de la Cordillera Cantábrica. Esta dinámica de pujanza ha sido potenciada mediante acciones de mejora selvícola que incluye la eliminación progresiva de especies exóticas.

Estas acciones favorecen la expansión del tejo en el País Vasco contribuyendo a mejorar el estado de conservación de un hábitat considerado de interés comunitario prioritario por la Unión Europea.



Azken txanpa Gastela eta Leoneko hagin multzoen kontserbaziorako jardunen jarraipenean



2021eko abuztuaren 10a

Amaitzear daude Gastela eta Leoneko bazkideek, Gastela eta Leongo Juntak eta Ceseforrek, Life Baccata proiektuaren barnean ezaugarritutako unada ugaritan kontserbazio eta hobekuntzarako jardunen jarraipena egiteko hasitako lanak.

Jarraipenerako lan horiek D1 ekintzaren barnean jasotzen dira. Ekintza hori bazkide guztiek burutu behar dute proiektuaren kontserbaziorako ekintzek 9580* habitataren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeko eta, modu horretan, berrezarpenerako esku-hartzeen eraginkortasuna balioesteko, horri dagokionez erabakiak hartuz, eta aldaketak edo neurri berriak gauzatuz.


Jarraipen hori egiteko Bioma Forestal taldeko aditu taldeak A1 Ekintzan identifikatutako adierazleak erabiltzen dira: hazien ekoizpena, birsorpen motak, kalteak birsorpenean, baso dendro-dibertsitatea eta hagin populazioaren egiturazko dibertsitatea.

2021. urte honetan Leoneko Los Ancareseko, Leoneko Erdialdeko Mendiko eta Leongo zatian dauden Europako Mendietako, Palentziako mendialdeko hagin multzoen nahiz Burgoseko (Arceo, Monte Hijedo, etab.) hagin multzoen informazioa jaso da.

Halaber, 2017. urtean finkatutako partzela-sareko datuak jaso dira. Partzela horiek Gastela eta Leoneko Kantauriar Mendilerroko Kontserbazio Bereziko 13 Eremutan banatuta daude eta fazies helduenean hagin multzoen dinamikaren ordezkagarritasuna balioetsiz hautatu ziren, zinez interesgarria horien kontserbazio-egoera balioesteko.



LIFE baccata



BULETIN N. 7

Abuztu 2021

